

# Noaia!!!

www.noaia.com



XXV. Sagardo Egunari buruzko gehigarri berezia



Ordezkaritza politikoen iritzia jaso dugu

## Galdeketaz galdezka

# Alkartasuna kooperatiba

## Urbil baino hurbilago

Urbilen aurkituko ez dituzun produktuak



# intxaurreak

## Usurbilgo baserrietako produktuak



hurrak



babarrunak



sagardoa



lxapalait



alparugatak



irahatsak

**Alkartasuna** Nekazaritza Kooperatiba Elkarte

alkartasuna@usurbil.com • Ugarte industrialdea 12. USURBIL • © 943 361 114

## Badok Amairu !!

### Fernando Oyarbide: "Hamar ijitorekin egin nuen parranda"

**F**ernando Oyarbide Tarifan egon da bizitzen denbora batez. Sentsazio berrien bila joan zen eta esperientzia aberasgarri batekin itzuli da. Futbolzalea bera, urruntasunetik Realarengatik sufritzen egon da.

#### 1. JAKIRIK GOGOKOENA.

Txipirotiak bere tintan.

#### 2. OHITURA TXARREN BAT.

Inpuntualitatea, elkarrizketara 10 minutu berandutu naiz...

#### 3. ZER GORDETZEN DUZU SAKELAN?

Mugikorra, musuzapia, giltzak eta dirua (daukadanean).

#### 4. ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?

Ormaetxean, baina Realaren entrenatzaile izan zen hartan!

#### 5. ZERI DIOZU BELDURRA?

Altuerari zertxobait.

#### 6. MIRESTEN DUZUN PERTSONA.

Stoichkov, Bartzelonako jokalaria.

#### 7. EZIN ZAITEZKE BIZI...

Amonaren oroitzapenik, familiarik eta lagunik gabe.

#### 8. EGINDAKO EROKERIA HANDIENA.

Ciudad Rodrigon, Salamancan, gau batean lagun guztiak joan eta hamar ijitorekin bakarrik gelditzea parrandan.

#### 9. LIBURU BAT.

"Momo", orain ari naiz irakurtzen.

#### 10. FILM BAT.

"E.T.", zineman ikusi nuen lehena.



#### 11. LEKU BAT.

Tarifa eta Atotxa zelaia.

#### 12. HERRIKO LEKURIK EDERRENA.

San Estebango elizako behatokia, Usturibil osoa ikusten delako.

#### 13. URTARO BAT.

Urtaro guztiak.

## Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usturibil  
Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehenakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloa Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.  
Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkideztza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Nerea Korta.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**IKA MIKA** ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## Aurkibidea

GIRO ONEAN OSPATU ZEN SAN IXIDRO **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

ERREFERENDUMARI BURUZKO INKESTA **8. OR.**

Zaborrak errausteari ezetz esan zioten ehunka herritarrek aurreko larunbatean Donostian. Herri plataformek erreferendum bat egitea eskatu dute. Honakoan, ordezkarri politikoen iritzia jaso dugu.



ANDATZAN TRIKUHARRI BAT GUTXIAGO **10. OR.**

II SOINURBIL MUSIKA ASTEA **11. OR.**

JOAN LUIS ATXEGAREKIN SOLASEAN **13. OR.**

HERRI ARTEKO PILOTA TXAPELKETA **15. OR.**

AGENDA: DEIALDIAK, EKITALDIAK... **17. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herra!



IDOIA TORREGARAI

## Pisukideak

Jadanik hilabete da Sugaar etxera iritsi zela. Ez da marka makala arraiak zaintzeko nire esperientzia "Buscando a Nemo" pelikulara mugatzen dela kontuan hartzen badugu. Hasieran, guraso "primerizoen" antzera, ez nekien oso ondo nola zaindu behar nuen. Izan ere, izakitxo honek ere ez zituen ekarri instrukzioak (beno bai, animalia dendakoak esandakoak).

Mesfidantza eta beldurra izan ziren bere begi beltzek kristalezko bere ziegatik transmititu zidatena hasieran. Nahikoa buruko min ere izan nuen/dut ea horrelako izaki biziduna hain toki txikitxoan izateko eskubidea ote dudan nire buruari galdetzen nion/diodan bakoitzean. Baina gizaki ahalguztidunok oso ondo egiten dugun bezala, berarentzat nirekin egotea onena dela sinestarazi naiz.

Beti izan naiz animaliazalea, baina normalean ugaztunekin izan ditut harreman bakarrak (bi hankakoez gain, esan nahi dut). Beno, aitortu dezadan nire harremana batez ere txakur eta katuetara mugatzen dela ia. Esan nahi dut inoiz ez dudala arrairik izan, beharbada txikitan aitak ferietan ez zuelako horrelako trofeorik bota balinarekin, beharbada amak labera sartzeko beldurra ematen zidalako, batek daki patuak zein bide hartzen dituen! Egia esan, beti zozo xamarrar iruditu zait espezie hau, eta kanpora ateratzeko mugak zein magalean hartzeko ezintasunak horrelakorik sekula etxera ekartzea baldintzatu dute.

Egunak joan eta egunak etorri, badirudi Sugaar eta biok elkar ulertzen joan garela. Aitortu behar dut etxera iristean egiten dudan lehen gauza berari kasu egitea dela, eta berak,

badakienez hurbiltzen zaion mantxa edo munstro handi horrek (nola ikusiko gaituzte?) janaria ematen diola (horretarako badirudi memoria 3 minutukoa baino handiagoa dutela), ba ur gainera inguratzen da, bere eguneroko razioa eskatzera. Jadantik ez da ezkututzen. Kosta zaio, baina badirudi mantxa handia=janaria binomioa barneratu duela eta hortxe dator abiada bizian, bere buztan gorri dizdiratsuari eraginez. Beste batzuetan, sofán botata nagoenean, bere kristalezko ontzira burua altxa eta begira-begira dudala konturatzen naiz, nik egiten dudan guztia ulertuko balu bezala. Nik hau guztia (gogoratu ahalguztidunak garela, ezagutzen naue-laren eta ondo erortzen natzaionaren) seinaleztat hartzen dut, noski. Pisukideak gara ofizialki.

Gure harremanean tentsio uneak ere badaude, dudarik ez dago; ura aldatu behar diodanean, adibidez. Bere gela zikina dagoela ez du onartzen eta noski, ontzitik ateratzen saiatzen naizenean garbiketa egiteko, Speedy Gonzalezen abiadura hartzen du ontzitik ez ateratzeko protesta moduan. Ondoren, ontzi batetik bestera salabardo txikian dagoenean, Green Peacekoak japoniar balleneroen aurrean egoten diren bezain gogor jartzen zait, oldarkor. Eta zer esan arrairen bat sukaldatzen badut! Zein gizaki mixerablea naizen adierazten dit bere begi txiki tinkoekin. Imajinatu, gero eta haragijale-agoa bihurtzen ari naiz eta!

Beno, hauxe nire bizikidetzaren lehen hilabeteko kronika. Jarraituko nuke gauza gehiago kontatzen, baina joan beharrean nago, La2 katean itsas faunari buruzko dokumentala hasi behar du eta.

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Aritz Gorriti

## Ika-mika !!

### Euskaltel ala Erdaratel?

Bere iritsi da zuntz optikoa. Gaur egun, Erkidego Autonomoan Euskaltel enpresak eskaintzen du kable bidezko zerbitzua, hots, telefonoa, telebista eta internet "pack" berean. Obra zibila egin ondoren, instalazio orokorra nola izango litzatekeen azaltzeko etxeetako ezkaratzetan bilerak egiten ari dira. Komunitateak instalazio hori egitea onartuko balu (doan izaten delarik), familia bakoitzak erabakiko luke etxe barrurako zerbitzua kontratatu ala ez.

Gu hilaren 12rako geunden deituak

baita pareko bizilagunak ere. Atarian zain nengoelarik gizonezko bat hurbildu zitzaidan erdaraz agurtuz. Euskaltelekoa zela esan zidan eta erdaraz jarraitu zuen hizketan. Euskaraz ez al zekien galdetu nioenean "pixka bat" erantzun zidan, hala-hola. Bere lankidea iritsi zenean ere gauza bera esan nion baina alfer-alferriki!

Zer adierazten digu honek? Bada, itxura guztiaren arabera, Euskaltel enpresak ez diela langileei euskaraz jakitea eskatzen. Ziur asko ETT bitartez kontratatatuak izango dira baina gai hori beste batetarako utziko dugu.

Bilera hauek antolatzeke lehenengo ezkaratzeko lehendakariari edo administrariari deitzen diote telefonoz. Beraz, adi egon usurbildarrok eta eskatu etorri behar duen komertziala euskalduna izatea!

Jakin badakigu gure herrian horrelako egoerak ez direla salbuespenak, tamalez, baina lerro hauen bidez momentu honetan auzoan gertatu zaiguna adierazi nahi izan dut.

Besterik gabe, Bai Euskarari!

Nagore Segurola Azkonobietta

# San Ixidro eguzkitsua

**B**itan ospatu da baseritarren eguna aurten. Batean zein bestean giroa primerakoa izan da. Maiatzaren 14an jende ugari bildu zen pilotalekua zein Dema plaza inguruan; San Ixidro bezperako azokan nola herri kirol lehiari. Haurrentzat ekitaldirik izan zen eta hauek ere ederki igaro zuten eguna.

San Ixidro eguna, ordea, astelehenean izan zen, maiatzaren 15ean hain zuten. Meza Nagusiaren ondoren, Andazpe elkarteak hamaiketako eskaini zien bertaratu ziren guztiei. Eguna bazkari batekin amaitu zen. Egun batez behintzat, baseritarrek atsedean hartzeko aukera izan zuten. San Ixidro eguna pasa da eta orain Sagardo Eguna dugu zain.



## Ika-mika!!

### Usurbildarrak jakin dezaten

**D**agoeneko inor gutxi izango da gure senide presoak bisitatzeko ehunka km egin behar ditugula ez dakienik. Usurbildar gehienek ere badakite udalak bisitetako gastuak bere gain hartzen dituela aspalditik, 1983-4-19an hartutako udal-akordioaren ostean. Geroztik, udalak beti ordaindu izan ditu gastu horiek. Esan beharra dago senideek soilik garraio gastuak pasatzen dituztela: peajeak eta gasolina kotxez joaten badira, edo autobus edo tren billetea. Gainerako gastuak, -otorduak, bertan hartu beharreko metro edo autobusak, trena edo autobusa hartzen den lekurainoko bidea (Hendaia, Donostia)-- bere kontura egiten dituzte. Langraitzen espeteratua dagoen Ramon Uribe kalezartarrenak ez dira aurkezten. Horrela egitea erabaki zen, mendekuzko sakabanaketaren ondorioen zama ekonomiko guztia herritarren gain ez utzearren.

Iaz, ordea, gauzak aldatu egin dira. Aurrekontuan 12.000 euro erreserbatuak bazeuden ere, urria iritsita oraindik bidaia bakar bat ere ez zitzaion ordaindu. Senideak udaletxean galdetu zuten ea zer gertatzen

zen eta, argitzapen zehatzik ezean, Luis Mari Ormaetxeari azalpenak eskatu zitzioten. Aurrekontua onartzerakoan atzerapena izan zela baina gastuak ordainduko zitzaizkiela agindu zuen hark.

Baina urtea amaituta partidari jasotako bakarrik ordaindu zitzaion (urteko gastuen %65 inguru). Argitu behar da aurrez ikusitakoa gairatuta egin bada, udalak beti ordaindu izan duela gainerakoa.

Hala, udal erabakia berraztertzeke idatzia aurkeztu zuten, gastuak justifikatuak zeudela, presoak urrutiago eta bizimodua ere garestitu izana kontuan hartzeko eskatuz, besteak beste. Bi hilabete eta erdi erantzunik gabe igarota, berriro bilera eskatu zioten Ormaetxeari.

Han argi eta garbi esan zien berarentzat 2005eko kitatua zegoela, ez zuela gehiago ordainduko eta 2006rako kopuru bera aurreikusitako duela baina, "gaurko egoera ikusita" urtearen erdialdera aztertuko zuela kopuru gehiago jarri ala ez. Gainera, haziendako ordezkari-edo bilakatuta, senideetako zeinek zuen diru premia handiagoa esaten hasi zen.

Etixerat-entzat, Ormaetxeak ez du udal-

akordioak dioena bete argi jasotzen baitu "presoak bisitatzeko egiten diren gastuak" ordaindu behar direla inolako baldintzarik gabe. Ormaetxeak jakin beharko luke, senideok astero pairatzen dugun zigor gehitua- ren kostu handiena ez dela, ez, ekonomikoa. Nola neurtzen dira, lan-uzteak, nekea, presak, bisitara helduko edo etxera onik itzuliko garen kezka, errepidean igarotako orduak, bizitako hainbat gauza galdu beharra bisitara joateko... Dirutan?

Sakabanaketaren aurka dagoela esan eta gero herritarren diruak bereak bailiran udal-akordioak urratu... Nola ulertzen da hori?

Gu gara egoera honekin bukatzea nahi dugun lehenak. Konponbidez horrenbeste hitz egiten ari denean ez dugu uste horrelako jokabideek asko laguntzen dutenik. Halere, jakin beza Ormaetxeak, baita bere alderdikide eta EAJko gobernukideek ere, guk ez ditugula inoiz senideak bisitarik gabe utziko, eta diru-premian baldin bagaude ziur garela, lehen ere hainbatetan egin bezala, herria bere laguntza emateko prest izango dugula.

TXOKOALDE

ALOÑA LOIDI

## Erroizpe Elkarteak umezurtz



**O**raingo honetan berri txar batekin natorkizue. Dagoeneko jakingo duzuen bezala Usurbilen eta nola ez Txokoalden oso ezaguna genuen Iñaxio, gehiengoaren ustez hobea den beste mundu batera joan zaigu.

Medikuek zein bere familiartekoei Iñaxioentzat onena zelakoan ebakuntza egitea erabaki zuten eta loalditik esnatutakoan sagardoa eskatzen bazuen ere ezin izan zuen ospitaletik onik irten, heriotzak bisita egin zion eta berarekin eraman zuen.

Iñaxio beti ikusten genuen alai; bere astoaren laguntzarekin lanean ari zenean, eguneroko Andatza alderako ibilaldian eta baita Erroizpe Elkartearen lanean zein lagunartean zegoenean ere.

Nik orain artean ezin izan dut inoiz Erroizpe Elkartearen Iñaxiorik gabe imajinatu baina hemendik aurrera ohitu egin beharko dugu horretara ere. Badirudi orain Erroizpe Elkarteak umezurtz geratu dela, izan ere Iñaxiok zerraman gauza guztien martxa eta zaila izango da orain gauzak berak bezain ondo eramango dituen ordezkari bat aurkitzea.

Beti izango zaitugu gogoan Iñaxio, adiorik ez, gero arte.



KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

## Uda usainean

**K**osta egin bada ere, eta oraindik goizetako preskurak hortxe diraude, udako usainak leku hartu die neguko egun hotzei. Jendeak jada atera ditu udako arropa arinak, oinetako freskoak eta abar baina ez hori bakarrik; festa usaina ere nabari da. Santa Krutzak izan dira Andoainen, San Telmoak Zumaian, San Prudentzioak Lazkaon eta datozenegi jendea jada prestatzen ari da; batzuk dantzak ikasten egun berezietarako, besteak, eta urteroko legez, danbor-hotsak nola ziren gogora ekarri arazten, eta hirugarren batzuk, berriz, afariak antolatzen. Azken batean, eta denak ere, jaietan parte hartzeko asmoz.

Beste gai bati helduz, oso gustuko dut Arratzaingo buelta ematea eta aukera eta gogoak biak bat egiten dutenean, tipi-tapa buelta ematera joaten naiz. Ba, duela ez denbora asko, sorpresa ikaragarria eraman nuen buelta ematen ari nintzela hilerri berriaren inguruan argia pasatzeko posteak jarri zituztela ikusi nuenean. Zera galdetu nion neure buruari "honaino bakarrik pasatzeko asmoa ote dute edo eta buelta osoan zehar jartzekoa?"

Bada beste gai bat azkenaldian bereziki kezkatzen nauena; saneamendua. Goikalde hauetan dagoen etxe edo baserri bakoitzak bere saneamendu sistema jarri behar izan zuen garai hartan eta gaur egun ere berdina, ez baita dago saneamenduko hodi nagusirik hemen inguruetan. Eta dagokionari luzatzen diodan galdera honakoa da; ez al legoke aukerarik saneamendurako hodia pasa eta horrela ingurugiroari kalte gutxiago egin?



KALEBERRI

IÑAKI AGIRRESAROBÉ

## Porlantokieta



**P**ortland hiria Ameriketako Estatu Batuetan aurkitzen da, Portland harrobia Olaztin, porlan lantegia Añorgan. Irubide eta Usurbilgo mugetan Belartza, orain porlanez beterik, garai batean muino eta paraje ederrez osaturik. Gaur egungo toponimia guztia Portlandokieta bihurtzera doa.

Izenak mantentzen dira, baina egindako aldaketek inolako esanahirik gabe uzten dute: Soro Arte, Belartza, Osinalde, Ugaldealdea.... Diru gosea ezin aserik egundoko abiaduran gure ingurune guztia eraldatzen ari da: bidezidorrak autopista, errepideak ilargirako bidea... Abiadura azkarra da nagusi, baina nora iristeko? Inora ez, abailan abiatu, berriz leku berera iristeko.



ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

## Badatorrela!

**U**surbilgo Sagardo Eguna herriarentzat presaturiko jai da, eta bertan herrikoek gain herri ezberdinetako jende mordoa bilduko da urtero legez festa giroan sagardoaren usaina gurean bihurtu arte. Baina galdetu al zarete inoiz zergatik sagardoaren inguruan hainbeste egun eta festa dauden? Azken urte hauetan, sagardoa geroz eta estimazio handiagoa duen neurrian, edaria bera jai eta ospakizun askoren ardatz bilakatu da. Horren adibide Usurbilgo Sagardo Eguna dugu; 1982az geroztik Gipuzkoan ospatzen den sagardoaren inguruko jaiarik garrantzitsuenak da. Bertan 45 sagardotegiko sagardoa izateaz gain, sagardogintza, erakusketak, jakiak, gozogintza, irrintziak, sagardo-botatzaileen lehiaketa, trikitixa doinuak,... izaten dira.

Dagoeneko festa giroa hasi da izan ere Sagardo Egunaren Lagunak antolatuta pasa den maiatzaren 12an sagardo dastatze afaria egin baitzen Mahaspildegi Elkartearen. Xabier Kamio enologoak gidatuta 20 bat lagunek sagardo klase ezberdinak dastatzeko aukera izan zuten, sagardoaren ezaugarri bereziak ezagutzeko: kolorea, txinparta, gorputza, usaina, bizitasuna, lehertasuna, gozotasuna eta garbitasuna. Igandean berriz XXV. Sagardo Egunaren zipriltzinez gozatzeko aukera izango dugu. Ondo pasa!



SANTUENA

ALEX TELLO

## Herri lasaia bizi-bizirik



Hemen, atzematen da obren zaratek eta autoek Hurratzen duten lasaitasuna. Bai, zorionez herri hau halakoa da: lasaia eta atsegina. Kaleko mugimendua balduko balu, erraz, bizigabe bihurtuko litzateke Usurbil. Eguraldiak ere, herriak izan dezakeen bizitzan agintzen du eta iluntzean, haurrak beren etxeetara joan eta dendak, tabernak ixten direnean herria lo gelditzen da. Ai! Gure arteko baretasuna baketsuagoa balitz...

Baina, igande hau egundokoa izango da. Ze, Usurbilen Sagardo Eguna eskura dugu!

Udaberriko eguzkia, bizpahiru laino eta kostaldeko haize goxoak etortzekoak dira. Hortaz, jaiak klima aproposarekin batera, eta urtero lez, kalean giroa aparta izango ditugu. Plazan, pretilan, zelaietan... nonahi aurkitu ahal izango da jende umoretsua irriz jolasean, bertotan eta dantzan.

Usurbildarroi hurbiltzen gaituen egunean, basoa eskuan, denok harro eta jator, sagardo egarria ase eta herriko aurpegi ezagunekin topo egiteko, parada ezin hobea izango dugu.

Dena den, festarako gogorik ez dutenek ez etortzeko askatasuna izango dute eta festarako animoak dituztenek ordea, ez dezatela kale egin, herria zabalik eta 'bizi-bizi' izango baita. Aldiz, etorri nahi eta ezinean daudenekin, noiz izango dugu topo eta topa egiterik? Jaiak libertatearen adierazle izan bedi!

Guztiok sagardo egun polit bat igaro dezakegulakoan...Ondo pasa!

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

## Maiatza hilabete betea



Agur bero bat guztioi Usurbilgo txoko honeratik! Maiatzaren erdia pasea dugu jada eta eguraldia lagun, opor usainean egongo dira dagoeneko batzuk. Izan ere, jada atzean utzi ditugu neguko eguraldi hotz eta goibelak eta eguzkia bazterrak berotzen hasia da. Gainera, maiatza hilabete handia da usurbildarrentzat... Alde batetik Andatza Eguna,

bestetik Sagardo Eguna eta batzuei ere jaunartzeren bat egokituko zaio. Andatzako magal honetan ere eguraldi onaren etorrera nabaria da, izan ere parkea azkenaldian bete-bete egon da. Familiak egun pasa, lagun artean egotera beste-eren batzuk eta noizean edo noiz, bakarren batek ere aprobetxatu ohi du eguerdiko tartetxoa, lehenengo eguzki izpiak hartzeko. Gainera, baten batek kukurrik oraindik entzun ez badu, honutzatza inguratu besterik ez du.

San Estebanak antolatzen ere hasiak gara.... Baina abuztua oraindik urrun denez, sagardo egunarekin hasi beharko dugu; ez baita festa txarra hau ere! Hurrengora arte!



AGINAGA

ANE MANZISIDOR

## Haur Txokoak Aginagan



Berriro ere hemen natorkizue Aginaga aldeko berri emateko asmoz. Ez dakit gogoan izango duzuen, azkeneko aldiz idatzi nuenean, udan Aginagan bizi poz piska bat emateko asmoz, haur txokoak antolatzeko proposamena luzatu nuen eta esan beharra dago, uste baino eskari handiagoarekin egin dugula topo.

Gauzak horrela, antolaketa lanetan aritu ginen, proposamen hau gauzatzeko asmoz, baina gauza guztiekin gertatu ohi den bezala, lehenengo oztupoarekin topatu ginen; dirua. Hau dela eta, gurasoekin bilera bat egin nahiko genuke, orain arte antolaketan egindakoari buruzko berri emateko eta diru arazo horri irtenbidea aurkitzeko.

Honenbestez, **maiatzaren 26an, ostiralean, arratsaldeko 17:00etan bilera egingo da Apaiz Etxean** eta haur txoko honetan parte hartzeko asmoa duten haurren gurasoak azaltzea eskertzekoa izango da. Guztien artean adostasun batera iristeko.

Bestalde, aipatu behar, maiatzean sartuak garelako dagoeneko eta gure herriko San Praixku jaiak ere gainean ditugula. Laster hasiko dira bilerak ere eta denok gonbidatuta zaudete berarekin parte hartzeko.

Besterik gabe, hurrengora arte.

ZUBIETA

XABIER ARREGI

## Zubietako hondartza



Ez da Kontxa. Metro koadro gutxi batzuk Hondar, eta nahikoa. Pozik dabilta Zubietako haurrak beren kubo, pala eta eskuarekin. Udaberri honetan, hondarrak ziprizontzen ditu eskola txikiko jolas parkeko bazterrak.

Orain dela urte batzuk itxekotan zen haur eskola. Behin baino gehiagotan ibili gara larri-larri, haur kopuru nahikorik ez eta, delegazioak eskola itxiko zigun beldurrez. Etxekin batera, esaten genuen, etorriko dira haurrak. Horra.

Datorren ikasturtean beste zazpi haur gehiago izango dira eskolan. Hazkundeak agerian utzi du eskola berritzeko eta egokitze premia. Tokia badago, baina instalazioek berritze sakona eskatzen dute.

Berrikuntza lanei ekiteko aukera ederra da honako hau. Izan ere, datorren urtean Zubietan ospatuko baita Eskola Txikien festa handia. Igeldok Zubietari pasako dio lekukoa aurten. Eta, zer egokiago, festa hori eskola txukundu eta berritu batean hartzeko baino.

Hasi beharko dugu, denok ere, motorrak berotzen, konturatzerako gain-gainean dugu eta festa egun hori. Ordurako beharrezkoa da urbanizazio-lanak ondo bukatzea, errebote plaza berritzea eta herriko plaza txukun jartzea. Ea Zubietara hurbiltzen direnak gure herriaren eta gure eskolaren irudi ona jasotzen duten.

# Galdeketaz galdezka

Erraustegien kontra eta erreferendumaren aldeko manifestazioa egin zen lehengo astean Donostian.

Aurkeztutako alternatibak kontuan hartzea eskatu zieten herri plataformek instituzioei.

Horren harira, herriko ordezkari politikoengana jo dugu iritziz eske.

Errausketa-planten inguruan galdeketa egitea eskatu dute ekologistek eta herri-plataformek.

## Egokia iruditzen al zaizu?

### Usurbilgo EA: “Hiri hondakinen kudeaketa ez da bakarrik errausgailua bai edo ez galdetzea”

Ez zait egokia iruditzen.

Gizarte honek eredu demokratiko eta instituzional bat onartua du, hiritarren gehiengo oso zabalak onartua: udalak, udal mankomunitateak, lurralde historikoen instituzioak, eta abar. Bakoitzak bere konpetentziekin eta egitekoekin. Lau urtetik behin herri kontsultak egiten dira – hauteskundeak – eta hor jasotzen du bakoitzak merezi duena. Ez ohiko kontsultak oso, oso egoera berezietan bakarrik erabiltzen dira.

Hiri hondakinen kudeaketa ez da bakarrik errausgailua bai edo ez galdetzea. Hiri hondakinen kudeaketarako plan bat badago – ez da ahaztu behar

hondakin hauen ardura udaletxeena dela, eta hauek udal-mankomunitateen bidez kudeatzen ditzuztela – eredu partehartzaile baten bidez osatu zena – ekologistak barne – eta bertan, hondakinen berrerabilera, erreziklaketa, konpostajea, eta abar kontuan hartzen dituen eta azkenean, errekuperagarri ezin diren hondakinak erretzea jasotzen duena. Errekuperagarri ezin diren hondakinen beste alternatiba zabortegeak dira.

Inork ez du nahi etxe ondoan errausgailurik. Nork nahi du bertederobato bat?, nork nahi du konpostaje plantarik? Nork nahi du transferentzi plantarik? Edota garbigunerik? Edota

tratamendu mekaniko-biologiko nazkagarririk? Edota, askoz ere hurbilago, irla ekologikorik, gure kaleetan ditugun zaborra eta erreziklatzeko biltzeko ontzi-gune horiek?, nork nahi du guzti honek suposatuko duen zerga igoera: hiru edo lau edo bost aldiz gehiago ordaintzea tokatuko zaiguna? Guzti hortaz ere herritarrei galdetuko diegu? Edo bakarrik gaurko instituzioak gobernatzen eta erabaki zailak hartzeko ardura eta beharrea dauden politikoa desgastatzeko gaietaz?

LuisMari Ormaetxea  
Usurbilgo alkatea, EA

### Usurbilgo EAJ-PNV: “Ez du balio galdeketa partzialak egitea, gizarteari egi guztia kontatu behar baitzaio”

Guk uste dugu horrelako konplexutasuna duten gaiak ez direla kudeatzen batere errazak izaten. Galdeketa egitekotan, ezinezkoa da erraustegia bai ala ez galdetzea, galdera beste bat da: Zer egin behar dugu zaborrekin? Eta horren aurrean, dauden soluzioen artean aukeratu, hau da, erraustegia edo zabortegea. Eta erantzuna zabortegea bada, garbi izan behar dugu guztiok hori ere nonbait egin beharko

dugula.

Hau da, guk galdeketak egiteari ez diogu beldurrik, baina ez du balio galdeketa partzialak egitea, gizarteari egi guztia kontatu behar baitzaio. Beste gauza bat da galdeketak egiterakoan eremua zein izan behar duen. Garbi dago inork ez duela bere alboan zaborrarekin zerikusirik duen azpiegiturarik nahi, baina horiek nonbait egin behar dutela.

Gipuzkoar guztioi afektatzen digun gai bati buruz herri bakar bati egin behar al zaio galdeketa? Garbi dago afektatutako herriak azpiegitura horiek beste nonbait jartzea nahiago izango dutela, eta orduan zein da irtenbidea?

Lourdes Jauregiberri  
Usurbilgo Uri Buru Batzarra  
Euzko Alderdi Jeltzalea



Errausketa-planten inguruan galdeketa egitea eskatu dute ekologistek eta herri-plataformek. Egokia iruditzen al zaizu?

## UHL: “Tamaina horretako erabakia hartzeko herritar orok erabakitzeke aukera izatea bidezkoa da”

Begi bistakoa da hondakinena arazo larria eta konponbide zailekoa dela. Baina herritar asko dago agintariak proposatzen diguten irtenbidearen –errausketarena– aurka sistema horrek ondorio eta arrisku handiak dituelako bai jendearen osasunarentzat baita ingurumenarentzat ere. Horrenbestez, tamaina horretako erabakia hartzeko herritar orok erabakitzeke aukera izatea bidezkoa da.

Agintean daudenak hori ulertu

beharko lukete, alde batetik demokrazia ariketa zuzena delako eta, bestetik, guztioi eta luzerako eragingo digun horrelako erabaki zaila hartzeko garaian egokia delako denak hitza izatea. Gainera, Usurbilen lehen ere izan da antzekorik (HB udal kudeaketan zegoenean Urbileko kasua).

Hori bai, edozein erabaki hartu aurretik herritarrak ondo eta era argian informazio guzti-guztia jasotzeko aukera izan behar dutela uste dugu,

horrela bermatuko baita arduraz erabakitzea.

Ez dugu ulertzen agintean daudenak zergatik dioten horrenbesteko beldurra herri-kontsulta bati. Ez al dira konturatzen beren “boterea” herritarrok emandakoa dela eta gu garela, finean, gure erabakien jabe izan behar dugunok?

Arantxa Manterola  
Usurbilgo Herri Lan, UHL

## Usurbilgo Aralar: “Erraustegiak nahi dituen ala ez galdetu egin behar zaio gizarteari”

Kontsumitu edo erabili ondoren bota eta berriz ere berria erosi eta zaborrera. Horrelako gorpil zoroan sartzen ari gara munduaren baliabideak mugatuak direla ahaztuta.

Errauste plantetan zaborra erre egiten da baina ez da dena mirariz desagertzen. Gai toxikoak igortzen dituzte, ez dago konponduta errausen edo azken hondakinaren arazoa, energia asko kontsumitzen dute eta kostua ere oso handia da. Energia sortzeko balio

omen dute baina birziklatuz gehiago lortzen da, gainera birziklatzea ingurumenarentzako hobea da eta ekonomikoki ere errentagarria izan daiteke.

Lehen ahalegina, zabor gutxiago sortzea da eta horretan denon inplikazioa lortu behar da, produktuak merkaturatzen dituztenena eta baita kontsumitzaileena. Etxeetan sortzen dugun zaborra bereizi egin behar da eta bilketa selektiboa egingo da, ondoren birziklatzeko. Birziklatze katean

ikerlarien, enpresarien eta politikoen elkarlana bultzatu behar da. Birziklapenak lanpostu asko sor ditzake.

Erraustegiak nahi dituen ala ez galdetu egin behar zaio gizarteari, erabakia garrantzitsuegia da erakundeetan soilik erabakitzeke. Horregatik bat egin genuen larunbatean Donostian egin zen manifestazioarekin.

Usurbilgo Aralar

## Usurbilgo PP:

### “Erreferendum eskaerak ez du zentzurik”

Energia berreskuratzen duen errausketa sistema, zaborra ezabatzeko teknologia da, birziklatzea eta konpostajearen osagarri izan behar duena. Mundu osoan onartuta dagoen teknika da eta PP alderdian ez dugu ulertzen zergatik ezin den Gipuzkoan teknika hori erabili. Udalerrien mankomunitateek egindako azterketek gauza bera diote, prebentzioa, birziklatzea eta konpostajea egin eta energia sortzen duen errausketa sistema dela alternatiba arrazionalena. Tekni-

koen erabakia normaltasun egoera batean hartu da, agente sozial eta adituen partehartzearekin batera. Kontestu honetan, erreferendum eskaerak ez du zentzurik. Herritarrek instituzioekiko duten konfiantza ahulduko lukeelako.

Eztabaida ez da errausketa bai ala ez, Plan Integralaren kudeaketa sistemari buruzkoa izan beharko luke eztabaida hori.

Manuel Michelena, Usurbilgo PP

## Usurbilgo PSE-EEren iritzia

PSE-EE alderdi sozialistak bi zinegotzi ditu Usurbilgo udaletxean. Amaya Goyaran zinegotziarekin harremanetan jarri ginen baina kanpoan izan da eta ez du gure galdera erantzuteko astirik izan. Hala ere, telefonoz azaldu digunez, kontsultaren aldekoa da eta bereziki kaltetuen iritzia kontuan hartu beharko litzatekeela dio Amaya Goyaranek, ez soilik mankomunitateena.

IMANOL UBEDA \_\_\_\_\_

## Trikuharri bat gutxiago du Andatzak

**A**ndatza Eguna ospatu berri dugu. Usurbil zein Zizurkilgo herrientzat hain berezia den ospakizuna. Andatzarekin zerikusia duen gertaera bat, ordea, ia oharkabean pasa da. Radio Nacional de Españak (RNE) Andatza inguruan ipini nahi duen antenaz ari gara hizketan. Eta antena hori jartzeko lanek eragin dituzten kalteetaz. Mendi honek zituen bederatzi trikuharrieta-ko bat suntsitua izan baita.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2003ko udan onartu zuen Uli mendiko antena lekuz aldatzea eta Andatza inguruan jartzeko baimena eman zion RNEri. Obrak egin aurretik, ordea, udalen baimena lortu behar izan zuen. Baina Eusko Jaurlaritzak ingurune babestua izendatu zuen Andatza 2003an, hainbat monumentu megalitiko daudelako bertan, trikuharriak gehienak. Hori dela eta, obrak hasi aurretik, prozedura berezia jarraitu behar izan zuten. Aranzadi zientzia elkarteak ingurua aztertu zuen baina harrigarria bada ere, ikerketan ez zuten obrak gelditzeko adina elementurik topatu. Aranzadiren aldeko txostenak eskuetan, Donostiako Udalak



OLAIKO GAÑA BEZALA EZAGUNA DEN TOKIAN ZEGOEN SUNTSITUA IZAN DEN TRIKUHARRIA.

pista egiteko baimena eman zuen.

Hala, antenarainoko bidea zabaldu asmoz, lau kilometroko biala irekitzen hasi ziren Zubietan. Artzabaletatik baserritik Andatzara bidean, lau metro eta erdiko zabalerako pista. Hori pasa den udazkenean izan zen.

RNEk jarri nahi duen antenak 96 metroko altuera du.

IMANOL UBEDA \_\_\_\_\_

### Donostian soberan dena, Zubietara?

Zubietan ezarri nahi den antenak Uli mendian dagoena ordezkatuko du. RNEk, era honetan, Uliko guardetxearen ondoko antena zuri-gorria Zubietara eramango du. Andatzan, Biribilondo izeneko tokian jarriko da antena, 400 metroko tontorrean. Biribilondo tontorre-rako pista eraikitzeke lan horiek Zubietako Herri Batzarraren kezka eragin zuten iazko urrian.

#### Kartzela, koartela...

Azken bolada honetan ez da Donostiatik Zubietara eraman nahi den azpiegitura bakarra. Martuteneko kartzela, Loiolako koartela, biometanizazio planta... Ahoz aho ibili dira. Akaso hori da zubietar askorentzat asaldagarriena. Donostiak nahi ez dituen azpiegiturak ezartzeko baliatu nahi dela Zubietara.

### Neolitiko garaiko trikuharri bat, pikutara

**A**restian aipatu dugun bezala, Eusko Jaurlaritzak monumentu izendatu zuen Andatza mendialdea 2003an. Pista egiteko lanak, ordea, iaz hasi ziren.

Antena berria eraikitzeke bidea zabaltzen hasi baino lehen, bederatzi trikuharri eta neolitiko garaiko zista bat zeuden Andatzan. Zeuden, bai. Trikuharrietako bat pista egiten ari den enpresak txikitu baitzuen. Iazko

azaroaren 2an izan zen hori. Garabiak Olaikora iritsi ziren. Trikuharri hau seinalizatua zegoen baina, hala ere, bidea irekitzen ari zirenek dolmena txikitu egin zuten.

Olaiko Gaña izenez ezagutzen den tokian zegoen txikitutako trikuharria, hortik izena. Andatza mendiaren ekialdeko saihetsean aurkitzen zen. J. Argomanizek aurkitu zuen 1983an eta industu gabe zegoen oraindik.

# Puntako artistak arituko dira Soinurbil Musika Astean

**I**az 20 urte bete zituen Zumarte Musika Eskolak. Urteurrena ospatzeko, Soinurbil Musika Astea antolatu zuen Zumartek. Lan handiak hartu zituzten baina jendearen erantzuna apartekoa izan zen. Horri esker, bigarrenez ospatuko da musika astea. Maiatzaren 19an hasiko da Soinurbil, Pirineos Jazz Orkestraren emanaldiarekin. Baina etxeko artisten emanaldiak ikusteko aukera ere izango da.

2003an lehen diskoa aurkeztu zuen Pirineos Jazz Orkestrak. Ordutik, orkestra honen lana ez da oharkabeen pasa. Talde honen kontzertuek arrakasta nabarmena izan dute ikusleen eta kritikariaren artean. Pirineos Jazz Orkestrakoak maiatzaren 19an izango dira Sutegin.

Ez da kanpotik iritsiko den proposamen bakarra izango. Iaz bezala, aurtengo Soinurbil Musika Astean ere Ekai Soka Laukotea arituko da. Mungia Musika Eskolako ikasleen bisita ere jasoko dugu. Eta atzerriko proposamenik ere aurkitu dugu egitarauan: Galizako Anduriña



IAZ UDARREGIN EGIN ZIREN JAIALDI GEHIENAK. AURTEN SUTEGI  
IZANGO DA EGOITZA NAGUSIA BAINA EZ BAKARRA.

dantza taldea Sutegin izango da maiatzaren 27an.

Zumarte Musika Eskolan osatu den perkusio taldeak ere jakinmin handia piztu du. Batukada-saio hori maiatzaren

27an izango da.

Debako Bandak eskainiko duen kontzertuarekin amaituko da Soinurbil Musika Astea. Baina hori maiatzaren 28an izango da.

## II. Soinurbil Musika Astea

Maiatzak 19, ostirala	Pirineos Jazz Taldea	Sutegin, 20:00etan.
Maiatzak 23, asteartea	Ekai Soka Laukotea	Udarregin, 18:30ean.
Maiatzak 24, asteazkena	Zumarteko ikasleen Kontzertu Pedagogikoa	Sutegin, 15:30ean.
Maiatzak 25, osteguna	Joan Luis Atxegaren organo kontzertua	Salbatore Elizan, 20:00etan.
Maiatzak 26, ostirala	Mungia Musika Eskolako ikasleak	Sutegin, 19:00etan.
Maiatzak 27, larunbata	Anduriña Dantza Taldea	Sutegin, 19:00etan.
Maiatzak 27, larunbata	Batukada emanaldiak	Kalean, 20:00/00:00.
Maiatzak 28, igandea	Musika Banda Kalejira eta kontzertua	Kalean, 11:30ean. Frontoian, 12:30ean.

# Pirineos Jazz Orchestra

Maiatzaren 19an ostirala, 20:00etan, Sutegiko auditorioan

**P**irineos Jazz Orchestra 2002ko irailean sortu zen eta Zarautzko Villa Mundan du egoitza. Orkestra hau Europako mugaz gaindiko lehen orkestra da, eskualdeko jazz musikari onenez osatutakoa, Iñaki Salvadorren (Gipuzkoa), Jacky Berakoetxearen (Aquitania) eta Iñaki Askunzeren (Nafarroa) zuzendaritzapean.

**Tam Tametik Tom Tomera (Jazzaren historia)**

Kontzertu hau, zeharkako kultura-egitaraua da, antzezle/musikari itsu baten bitartez, musika-genero honen bilakaera deskribatzen du, esklaboak XVII. mendean Amerikara iritsi zirenetik gaur egun arte, esklabotasun-mendeetatik igaroz (XVIII-XIX

mendeak). Kontzertuak hainbat osagai biltzen ditu unitate bakarrean: historia, antropologia, geografia, arraza eta kulturen arteko topaketa... Afrikar sustraietatik abiatu eta Amerikan topatu zuten europar kulturarekin elkartu zen arte.

Antzezlea free jazzeko iparamerikar musikaria da, itsua eta beltza; 12 eszenatan musika mota horren gorabeherak kontatzen dizkigu, esklaboen trafikoaren garaitik gaur egun arte, Afrikako, Europako eta Amerikako zibilizazioak eta kulturak bat eginez. Eszena edo kapitulu horiek hainbat garairi dagozkie eta hainbat musikarereferentzia ematen ditu adibideen bitartez.

Pirineos Jazz Orkestrako musikariek hainbat garai eta estilotan barrena



MAILA HANDIKO MUSIKARIEK OSATZEN DUTE TALDE HAU.

eramango gaituzte: hasi work songs, ragtime eta spirituals-ekin, eta rock and roll, bebop eta free jazzekin bukatu, swing eta dixielandetik igaroz, eta urratsez urrats gaur egungo beste musika forma asko irauli eta busti zituen generoaren historia kontatuko digute.

## Ekai Soka Laukotea eta Piruleta

Maiatzaren 23an asteartea, 18:15ean, Udarregi ikastolan

**E**kai laukotea Donostia inguruko lau musikariek osatzen dute. Goi mailako ikasketak bukatuta eta zenbait orkestatan elkarrekin aritu ondoren, musikaren inguruan ikusten zituzten hutsune batzuk betetzeko asmoz, laukotea sortu zuten.

Laukoteko partaideak nor bere kabuz musika estilo ezberdinetako zenbait proiektutan aritu dira eta elkartu direnean ere, aniztasun hori mantendu nahi izan dute.

Batetik, hurrei sokazko instrumentuak ezagutaraztea da beraien helburua; bakoitzak dituen ezaugarriak aztertu eta bata bestearengandik bereizten jakitea; eta bestetik, hurrek musika zuzenean ikusi eta entzunez, ondo pasatzea.

**Emanaldi dibertigarria**

Horretarako, entzute eta partehartze jokoez baliatuz, emanaldi dibertigarri bat prestatu dute, hurrei musika hurbiltzeko asmoz.

Partaideak: Ainhoa Franco, Idoia



IAZ BEZALA, AURTEN ERE UDARREGIN ARITUKO DA EKAI SOLA LAUKOTEA.

Zabala (bibolina), Nerea Gutierrez (biola), Itziar Lertxundi (biolontze-loa) eta Itziar Etxegia.

Maiatzaren 24an asteazkena, 15:30ean Sutegin

### Gaztetxoentzat kontzertu pedagogikoa

**Z**umarte Musika Eskolako ikasle gaztetxoek ere jaialdia eskainiko dute. Udarregi ikastolako 4, 5, 6 eta 7 urteko ikasleentzat kon-

tzertu pedagogikoa emango dute Sutegin. Instrumentu desberdinak gertutik ikusi eta entzuteko aukera izango da bertan.



## Joan Luis Atxega organojolea: "Oso entzungarria eta samurra izango da eskainiko dudan kontzertua"

**O**rgano karrera osoa egina du Joan Luis Atxegak. Donostiako Jakintza ikastolako musika irakasle da baina aisialdiko denbora gehiena organoaren teklatu aurrean pasa ohi du. Maiatzaren 25ean, Zumarte Musika Eskolaren ekimenez, organo kontzertua eskainiko du Salvatore elizan. Berezia izango da saioa. Irailean organoa eraberritzen hasiko baitira. Berritze-lanak bi urtez luzatuko direnez, organoaz gozatzeko azken aukera izango da maiatzaren 25ekoa.

**NOAUA!** Nondik datorkizu organoa jotzeko zaletasuna?

Joan Luis Atxega. Musika zaletasuna etxetik jaso nuen. Guraso eta osabari esker, 6 urterekin edo hasi nintzen. Baina 8 urterekin Axentxio Elustondo parrokoarekin hasi nintzen musika ikasten.

Eliza mailako abesbatza osatu zuen Axentxiok. Berak zirikatuta hasi nintzen pianoa jotzen. Handik gutxira, dohain batzuk banituela eta Axentxio ez zela niri jarraipena egiteko gai eta piano karrerari ekin nion. Irakasle partikular batekin, Miguel Angel Davórekin hasi nintzen. Erdi mailako ikasketak egin nituen eta gero organoa jotzen hasi nintzen. Garai batean Donostiako katedraduna zen Esteban Elizondorekin egin nuen organo karrera. Aldi berean, musika pedagogiako goi mailako karrera egin nuen.

**N.** Asko dira hasi bai baina ikasketak amaitzen ez dituztenak. Zuk, ordea, organo karrera amaitu zenuen.



GIPUZKOAN DAGOEN ORGANO GARRANTZITSUENETAKOA DA SALVATORE ELIZAKOIA.

**J. L. A.** Organo munduak beti erakarri nau. Kontzertu askotan ibili naiz eta lagun asko organistak ditut. Gainera, oso esker oneko lana da. Hamabostean behin jotzen dut Salvatore elizan. Lehen astero ibiltzen nintzen baina orain txandaka gabilta Luismari alkatea eta ni. Entzulego aktiboa dugu. Jendaurrian jotzen ditugu organo piezak eta gero beti bat edo beste geratzen da eskertzeko. Mezak, niretzat, kontzertuak ere badira.

**N.** Musika Astean joko duzu. Maiz eskaintzen al dituzu horrelako saioak?

**J. L. A.** Gipuzkoako herri gehienetan aritu naiz. Bergaran, Donostiako Santa Maria elizan, Oñatin, Tolosan, Zumaian, Orion, Zarautzen, Azkoitian, Bidegoianen, Errezilen, Alkizan...

**N.** Beste toki batzuetan aritu eta gero, luxua al da Salvatore elizan dagoen organoa jotzeko aukera izatea?

**J. L. A.** Bai, luxua da bai. Ez da nolana hiko musika tresna. Euskal Herriko Kontserbatorio Nagusiko organo irakasle da Esteban Landart eta aldizka hona etortzen da organoa jotzera. Dudarik gabe, Gipuzkoan dagoen organo garrantzitsuenetakoa da Usurbilen duguna.

**N.** Nolakoa izango da maiatzaren 25ean eskainiko duzun kontzertua?

**J. L. A.** Oso entzungarria eta samurra. 25 urte dira eliza honi lotuta egon naizela eta horregatik kontzertua liturgiko eran egitea pentsatu dut.

IMANOL UBEDA \_\_\_\_\_

## Usurbilgo organoak 100 urte beteko ditu laster

**S**alvatore elizan dagoen organoak Pariseko "Mutin/ Cavallé-Coll" etxearen sinadura darama. Etxe famatu honek egin zuen organorik onenetakoa da Usurbilgoa. 1907. urtean egin zen, beraz, 100 urte beteko ditu laster.

Dena den, berritze premia du organo-

ak. Hori dela eta, Salvatore elizan dagoen artelana berritzeko batzorde bat osatu zen duela bi urte. Kultur Batzordetik adituzera eman denez, organoaren zaharberritze lanak laster hasiko dira.

Beraz, Joan Luis Atxegak eskainiko duen kontzertuaren ondoren, denbora

tarte batean ez dugu Salvatore elizan dagoen harribitxia entzuteko aukerarik izango.

EGUNA: maiatzak 25, osteguna  
NON: Salvatore elizan, 20:00etan  
ORGANO-JOLEA: Joan Luis Atxega

## Lagun ugari bildu ziren Poxpolo eta Mokoloren saioan

**L**ehengo astean hasi zen Plis, Plas, Txalo ta Jolas. Bikain hasi gainera. Poxpolo eta Mokolo pailazoez lagun ugari bildu zituzten Zubietako pilotaleku berrian. "Zirkoa" ikuskizunarekin haur zein gurasoen arreta bereganatu zuten. Plis, Plas egitarauaren bigarren hitzordua maiatzaren 27an izango da Santuenean. Txatxilipurdi Taldeak "Euskal karaokean" parte hartzeko gonbitea egingo die Santuenera hurbiltzen diren guztiei. Animo!

Poxpolo eta Mokolo izan dira lehen gonbidatuak. Baina ez bakarrik. Maiatzaren 27an euskal karaoke batean parte hartzeko aukera izango dute haur eta gaztetxo denek. Txatxilipurdi Taldekoak Santuenera eskubaloiz zelaian izango dira arratsaldeko 17:00etan.

Urtero bezala, Plis, Plas egitarauaren bidez NOAUA!k eskaintza zabaldu egin die gaztetxoenei. Maiatzaren



"ZIRKOA" IKUSKIZUNA ESKAINI ZUTEN  
POXPOLLO ETA MOKOLO PAILAZOEN.

27ko karaoke saioaren ondoren, Pello Añorga ipuin kontalariaren txanda izango da. Ekainaren 3an Kalezargo Haur Eskolan arituko da Pello Añorga. Ekainaren 10ean, aldiz, jolasteko gunea jarriko da Aginagan eta ekainaren 15ean Pirritx eta Porrotx pailazoez amaituko da Plis, Plas, Txalo ta Jolas. On egin!

## Larunbat honetan Aginagan

### Gomazko Paletako Herri Txapelketa

**G**ipuzkoako III. Gomazko Paletako Herri Txapelketa jokoan da egunotan Aginaga eta Zumaia pilotalekuan. Txapelketa hau federatu gabeak diren jokalarientzat antolatu ohi da. Hirugarren edizio honetan, hauek dira Agiña taldea ordezkatzeko ari diren jokalariek: Joseba Larburu, Manuel Galarraga eta Aitor Landa. Agiñaokekin batera, Lasarte-Oria, Oiartzun, Asteasu, Tolosa, Segura, Loiola eta Ataun ari dira lehiatzen Aginagako pilotalekuan.

Lehen jardunaldian, Agiñak Oiartzungo taldea hartu zuen mendean 25 eta 17 irabazi eta gero. Aurreko ostiralean, Lasarte-Oriako taldeari irabazi zion Agiñak. 25-12, azken emaitza.

Honez gero, finalerdietan sartu dira Aginagakoak eta partida hori maiatzaren 26an jokatuko dute Aginagako pilotalekuan arratsaldeko 20:00etan hasita.

#### Eskuz binakako Txapelketa

Gipuzkoako Eskuz Binakako Herri Txapelketa larunbatean hasiko da. Laugarren edizioa izango da aurtengoa eta usurbildar ordezkariak hauek izango dira: Arkaitz Portularume eta Iñaki Errekondo. Lezoko taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak arratsaldeko 17:00etan (Lezoko pilotalekuan jokatuko dute partida). Txapelketan parte hartuko duten gainontzeko herriak hauek: Lezo, Loiola, Hernani, Alkiza, Anoeta eta Zizurkil.

## Sagardo Eguna, herritarren laguntza premian

**S**agardo Eguneko Lagunak taldeak ohar hau argitaratzea eskatu digu: "Sagardo Egunaren prestaketa lanak bezperan hasiko ditugu, maiatzaren 20an larunbata. Goizeko 8:00etan pilotalekuan bilduko gara eta herritarrei parte hartzeko deia luzatu nahi diegu".

## Etixeratlek elkarretaratzea egingo du Sagardo Egunean

**E**tixeratlek aditzera eman duenez, "Sagardo Egunean, urtero bezala, eguerdiko 13:00ean enkartelada egingo dugu frontoi atzeko parkean".



## Kontribuzioa

**2**006ko Ondasun Higiezin Gaineko Zerga (kontribuzioa) borondatez ordaintzeko epea maiatzaren 15ean hasiko da eta uztailearen 4ra bitartean izango da zabalik.

Dagoeneko Usurbilgo udalak kontribuzioak ordaintzeko epea ireki du borondatezko epean. Domiziliaturiko agiriak uztailearen 4an kargatuko ditu zergapekoak aginduriko banku kontu korrontean.

Domiziliatu gabeko kasuetan zergapekoaren helbide fiskalera igorri dira agiriak, epea amaitu baino lehen, ordaintzeko Kutxa, Euskadiko Kutxa edo Guipuzcoano banketxean berau aurkezturik egin beharko delarik.

Era berean gogorarazten da, zerga ordaintzerakoan hurrengo urteetarako helbideratu daitekeela agiria, momentuan agindua emanaz edo Usurbilgo udaletxeko zergabillketa sailean.

# Final laurdenak gertuago ditu Usurbilek Herri Arteko Pilota Txapelketan

**G**ipuzkoako Herri Arteko Pilota Txapelketako final laurdenetara sailkatzeko aurrerapauso garrantzitsua eman zuen Usurbilek pasa den larunbatean. Herriko pilotalekuan jokatu zituzten Zegamaren aurkako joaneko partidak eta herriko pilotariak ez zuten hutsik egin. 2-1 irabazteaz gain, 17 tantoko aldearekin ekingo diote ostiralean Zegaman jokatu den itzulerako norgehiagokari.

Zegamaren aurkako final zortzirenetako joaneko partidek ez zuten ikusmin handiegirik sortu herriko pilotalekuan. Jaialdiaren hasieran herritar gutxi ikus zitezkeen bertako harmailetan eta ondoren pixkanaka jendea frontoira gerturatzen joan bazen ere, Herri Arteko Txapelketa honek herrian sortu izan duen giro beroa faltan bota genuen pasa den larunbatean.

Norgehiagoka honetako hiru partidek ere ez zuten giroa berotzen askorik lagundu. Jaialdiko hiru partidetan ez zen parekotasunik izan eta frontoira gerturatu zirenek ezin izan zuten pilotaz gozatu. "A ze hiru partida" entzun zitezkeen amaieran, eta arrazoirik ez zuten falta. Izan ere, 22-5, 1-22 eta 22-1 izan ziren larunbateko emaitzak.

Kadete mailan garaipen erraza eskuratu zuten Imanol eta Eñaut Esnaolak. Zegamara lasai joateko partida hau ahalik eta tanto alde handienaz irabaztea garrantzitsua zela adierazi zigun Enrike Huizi herriko ordezkariak eta herriko pilotari gazteek ondo bete zuten beraien lana. Partida hasieran huts batzuk egin zituzten, baina ondoren inolako arazorik gabe lortu zuten garaipena eta 22-5 izan zen azken emaitza.

Jubenil mailan alderantzizkoa gertatu zen. Aurreko kanporaketa jokatu zuen Iñigo Irastorza aurrelariak ez zuen jokatzetik izan eskuetako minaren ondorioz, eta Alain Arrillaga izan zen

Iker Zinkunegirekin batera jokatu zuena, baina herritarrek 1-22 galdu zuten Zegamako pilotari gazteen aurka. Partida hasieratik beren lekua aurkitu ezinik ibili ziren herriko pilotariak eta ohikoa baino huts egite gehiago eginenez, tanto bakar bat besterik ezin izan zuten egin.

Jaialdiko azken partida ere laburra izan zen. Enrike Huizi eta Asier Arruti herriko pilotariak ez zuten izerdirik botatzeko aukera handiegirik izan, Zegamako pilotariekin alderatuz beste maila batean daudela erakutsi baitzuten. Aurkariak tanto bakarra egin zuten, eta usurbildarrak jolasean ibili ziren partida osoan zehar. Hala ere, aurreko norgehiagokak nola joan ziren ikusita, 22-1 irabaztea garrantzitsua izan zen final laurdenetara sailkatzeko bidean.

## Itzulerako partidak ostiral honetan Zegaman

Izan ere, ostiral honetan arratsaldeko 19.00etatik aurrera jokatu dira itzulerako partidak Zegamako pilotalekuan, eta aurrera jarraitzeko txartelaren

## Futbol taldea, azkenean seigarren

**U**surbil Futbol Taldeko 1. Errejonial mailako taldeak ezin izan zuten denboraldiko azken partida irabazi eta 6. postuarekin konformatu behar izan dute herriko jokalariek. 4. edo 5. postua lortzeko Irungo Gal futbol zelaian Mariño taldearen aurka garaipena lortzea behar beharrezkoa zuten, baina neurketa txarra jokatu eta 3-0 galdu zuten. Hala ere, iaz mailaz igo ondoren denboraldi bikaina burutu dute usurbildarrek, denboraldi osoan zehar 5 norgehiagoka besterik ez baitzituzte galdu.



FINAL LAURDENETAN  
AZKOITIKO TALDEA DAGO ZAIN.

zati handi baten jabe egin badira ere, estuasunik ez pasatzeko kadete eta nagusien mailako partidetan garaipena lortzea ezinbestekoa izango da. Larunbatean ikusitakoaren arabera ez lukete arazorik izan behar, baina batek daki zer gerta daitekeen Herri Arteko Txapelketa honetan.

Final laurdenetara sailkatuko balira, Azkoitiaren aurkako norgehiagoka interesgarria izan liteke. Hauek bideratuta utzi dute (3-0) Aiaren aurkako kanporaketa eta garai batean bezala lehia bizia sortu daiteke usurbildar eta azkoitiarren artean.

JOSU ARANBERRI

## Garaipena kadete mailako nesKentzat

**N**erea Agudo eta Patxi Bengoetxeak zuzendutako kadete mailako nesken eskubaloi taldea denboraldi bikaina burutzen ari da. Udaberri Txapelketan 2. postua eskuratzeaz gain, Federazio Txapelketan finalerdia jokatu behar dute eta Gipuzkoako Kopan ere maila ona ematen ari dira. Pasa den igandean 14-18 irabazi zuten Oreretako kiroldegian Ereintza Aguaplast taldearen aurka eta txapelketa amaitzeko bi jardunaldi falta direnean sailkapeneko 2. postuan kokatuta daude.

## Aholkua !!

## Argi ezteiekin: garesti irten dakizuke

**E**zkontzeko sasoirik onena udaberria omen da. Hala ere, hobe kontuz ibiltzea. Bestela, baliteke ezkontza oso garesti ateratzea. Ezteibazkaria, eztei-jantzia eta eztei-bidaia dira gastu guztietan garestitxoena.

Eztei-bazkariari dagokionez, onena da zenbait jatetxeetako prezioak konparatzea. Ezkontza lanegun edo igandean ospatzen bada, zenbait tokitan oso prezio interesgarriak eskaintzen dira.

Kontratuan, zehatz-mehatz azaldu behar da zer eskainiko den: menua, dekorazioa... Negoziatu gonbidatuen kopurua azken momentuan aldatzeko aukera. Eta

jatetxeak ezin zaitu argazkilari jakin bat kontratatzea behartu.

Ezkonberrien jantziak erosi egin ohi dira. Dena den, gastuak murrizteko, posible da jantziak alokatzea. Horrela eginez gero, komenigarria da jantzia garbitzea prezioaren barruan dagoen jakitea.

Eztei-bidaietan kontuan hartu behar da bidaia-agentziek bidaia bereziak antolatzen dituztela. Eskatu bidaia buruzko informazio-orria eta gorde itzuli arte, erreklamazioak egiteko balio du eta. Eskatu idatzizko kontratua eta begiratu ondo bidaiarekin zerikusia duen guztia jasota dagoela.

Ezkontza antolatzeko astirik izan



ezean, gauza horietaz arduratzen diren enpresak daude, protokolo-enpresak. Normalean, enpresa hauek ezkonberriei ez diete ezer kobratzen; jatetxe eta bidaia-agentziei kobratzen diete, komisio-truke lan egiten dutelako.

## Eguneko goardiako farmaziak

Maiatzak 18, osteguna  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Maiatzak 19, ostirala  
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Maiatzak 20, larunbata  
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Maiatzak 21, igandea  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Maiatzak 22, astelehena  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Maiatzak 23, asteartea  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Maiatzak 24, asteazkena  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Maiatzak 25, osteguna  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Maiatzak 26, ostirala  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Maiatzak 27, larunbata  
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Maiatzak 28, igandea  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,  
Hermani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

## Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN  
Zubieta-Donostia  
7:55\* / 9:30(T) / 13:15(T) /  
14:35\*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta  
(Gipuzkoa plazatik)  
7:15\* / 9:00 / 12:45(T) /  
13:45\* / 18:45

LARUNBATETAN  
Zubieta-Donostia  
8:15(T) / 12:45 /  
15:15(T) / 21:35(T)

(Gipuzkoa plazatik)  
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN  
Zubieta-Donostia  
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) /  
21:35 (T)

Donostia-Zubieta  
(Gipuzkoa plazatik)  
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) /  
21:00 (T)

\* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

JOSUE  
ARANZAZISTROKI  
IGELTSERITZA  
eta  
PINTURA

Juan Jose enea. 6 Kalezar  
Telf: 606 37 21 05

I lts r tz

Mugikorra: 649435475  
649435476  
943 363370- 361439

teilatuak eta fatxadak  
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU  
© 943 69 68 52 · 620 800 186



BORDATXO  
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5  
Telf: 943 37 10 42



## Agenda !

### Maiatzak 19, ostirala

Pirineos Jazz Taldea 20:00etan Sutegin. Antolatzailea: Zumarte, Usurbilgo Udala. Sarrera doan.

### Maiatzak 21, igandea

Sagardo Eguna (egitaraua ale honetako gehigarri berezian).

### Maiatzak 23, asteartea

Ekai Soka Laukotea 18:15ean Udarregi ikastolan. Antolatzailea: Zumarte, Usurbilgo Udala. Sarrera doan.

### Maiatzak 24, asteazkena

Zumarteko ikasle gazteen kontzertu pedagogikoa 15:30ean. Sutegin. Antolatzailea: Zumarte, Usurbilgo Udala. Sarrera doan.

### Maiatzak 25, osteguna

Joan Luis Atxegaren organo kontzertua Salbatore elizan, 20:00etan. Antolatzailea: Zumarte, Usurbilgo Udala. Sarrera doan.

### Maiatzak 26, ostirala

Mungia Musika Eskolako eta Zumarteko ikasleen kontzertua 19:00etan Sutegin. Antolatzailea: Zumarte, Usurbilgo Udala. Sarrera doan.

### Maiatzak 27, larunbata

- Euskal karaokea. Plis, Plas, Txalo ta Jolas. 17:00etan Santuenean. Antolatzailea: NOAUA!

- Anduriña Dantza Taldea eta Zumarteko ikasleak Sutegin. 19:00.

- Batukada emanaldia 20:00etan eta 23:30ean. Klean.

Antolatzailea: Zumarte, Usurbilgo Udala. Sarrera doan.

### Maiatzak 28, igandea

Debako Musika Bandaren kalejira eta kontzertua 11:30ean klean zehar eta frontoian.

## Musikaren txokoa !

### Keu, orain, UEK da

UEK, Keu duzu, alde-rantziz. Eta Keu Jesus Mari Agirretxea da, Ondarruko gitarrista jotzailea, eskal rockaren baitan curriculum garrantzitsuaren jabe dena: Etsaiak taldeko kidea eta gitarra jotzailea izan da, baita Fjord proiektuaren sortzailea. Bere aurreko hiru lanetan paisaia instrumentalak marraztu baldin baditu, kasu honetan -aurreko bildume-



tan ez bezala- KEUk berak abesten du eta jotzen du gitarra, Mikel Arakistain baxu jotzaileak (Etsaiak, Fjord) eta Jon Gurrutxaga bateria jotzaileak (Arima Beltza) lagundurik. Agerian geratzen da talde gisa bere egiten dutena: 70. urteetako hard-rocka, rock melodikoa eta erritmo biziak tarteko...

Power hirukote baten moduko esperientzia. Diskoa Andoaingo Garate estudioan grabatu zuten Haritz Harreguy Usurbilgo teknikariaren esanetara.

## Egin kontu !

### “Ateak zabalik” jardunaldiak antolatu ditu Lanbide Eskolak

Usurbilgo Lanbide Eskolak "Ateak zabalik" jardunaldiak antolatu ditu. Larunbat honetan, maiatzaren 20an, Zubietan dagoen Lanbide Eskola hau ezagutzeko aukera izango dugu. Goizeko 11:00etan irekiko dituzte ateak.

Aurre-inskripziorako epea, aldiz, ekainaren 7an zabalduko da. Matrikula epea, ordea, ekainaren 30ean hasi eta uztailearen 6an amaituko da. Usurbilgo Lanbide Eskolan hezkuntza arautua (heziketa zikloak) eta ez arautua (langile edo langabe-tuentzako ikastaroak) eman ohi da.

Hiru familietako heziketa zikloak



MAIATZAREN 20AN EGINGO DA "ATEAK ZABALIK" JARDUNALDIA.

ematen dira, A eta D ereduetan eta Erdi eta Goi mailetan. Famili hauek fabrikazio mekanikoa, produkzio-zerbitzu eta mantenimendua, eta elektrizitate-elektronika dira.

**LATAILLADE**  **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA  
MANTENIMENDUA ETA  
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**



ARRAINDEGIA

**PELLO**

 Puntapax Kalea, 7   
Tif 36 21 64  
USURBIL

## ETXEBIZITZA

- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahi-ko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut premiaz. 620 646 769.
- Usurbilen alokairuan etxe bat behar dugu. Ordainketa bermatua. 943365737.
- Capbreton (Landas) Home mobile (bungalow) alokatzen da. Hondartza gertu. Guztiz jantzita, bi logela dauzka, terraza eta jardina. Aste buruak eta uda. Ekonomikoa. 685 721 652 edo 665 734 009.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian, 22m2, kotxea erraz sartzen da, 76 euro. Interesatuak deitu arratsalde: 943373185.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

## LANPOSTUAK

## Lan-eskaerak

- Kamarera bat eskaintzen da. Esperientziduna. 616273785
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak eta helduak zaintzeko eta antzeko lanetarako. Interesatuak deitu 630274906.
- Bakeiran snow-ko klaseak eta ikastaroak ematen dira. Alojamentua ere eskaintzen da. Informazio gehiago: 652 651 906
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientzidunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gaztekeraz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Telefonoa: 626 641 155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskaierak garbitzeko neska bat

eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.

- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

## Lan-eskaintzak

Aginagako Manterola gasolindegian oporretako ordezkapenerako pertsona bat behar da, ekainetik urrira lan egiteko. Interesatuak curriculum argazki batekin utzi gasolindegian, edota deitu 943 36 13 95 zenbakira (Garbiñe).

- Etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko egun osoz, pertsona baten bila gabiltza .645403905.
- Emakume bat behar da etxeko lanetarako.650947142
- Zarautzko malekoian udan lan egiteko zerbitzariak behar dira. Interesatuak deitu 661972670 telefonora.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- 6 urteko neska baten txandal txaketa berde bat galdu dugu Txirrista inguruan. Aurkitu duenak deitu dezala: 658723426.
- Korxe bat salgai, Opel Frontera. SS-AP, 3.000 euro. ITV eta bineta ordainduta. Telefonoa: 656 712 340 (Luis).
- Euskadiko selekzioko txandalaren jertsea galdu zait, frontoi inguruan. Aurkitu duenak deitu 943 366 845.
- Urrezko pultsera bat galdu zait Artzabalgo frontoi inguruan. Aurkitzen duenak NOAUA!ra eraman dezala. Eskupekoa emango da.
- Antxumeak eta ibiltzeko zaldi bat saltzen ditut. Interesatuak deitu: 657633461.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukutzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. E-maila profesionala, modu onean. Telefonoa 617242660 edota zapore@euskalnet.net
- Telebista aldatzekotan bazara eta zer egin ez badakizu lizean daukazunarekin, gustora hartuko genuke. Deitu 943360321 telefonora eta geroni pasako ginateteke jasotzera.
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. 667 694 049.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Komun kimiko bat eta sukaldea. 1.200km. Prezioa 6.000 e. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. Tlfnoa: 605 72 48 24
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

## Txerrimunik ordainetan !!



**Nortzuk dira sudur borobildun hauek?** Hara, Iratxe eta Asier! Zenbat urte egin zenituzten maiatzaren 10ean? Asko baietz? Muxu handi bana Josune, Oskar, Malen, Olatz, Xabier, Patxi, Txingu eta Zaloaren partez! Zorionak Iratxe eta Asier!



**Zorional Imanol eta Leire** zuen urtebetetze egunetan, maiatzaren 19an eta 25ean ondo-ondo pasa familikoekin eta lagunekin!

## Zorionak Xabier!

Maiatzaren 24an egingo dituzu 9 urte eta 28an izango duzu lehenengo jaunartzea. Pilarren partez, zorionak eta orain bezain jator jarrai dezazula. Ondo pasa!



## Zorionak Amona!

Larunbatean egingo dituzu urteak eta gu ere gogoratu gara zu gutaz gogoratzen zaren bezala. Zorionak eta besarkada handi bat familia osoaren eta zure biloben partez!



**milorri**  
lizea eta ekologikoa

manutenimendua, diseinua eta aholkularitza

Bonda berr, 10 - Usurbil  
☎ 660 154 114/699 152 282  
milorri@usurbil.com

**BITXI**  
Tailerra

urro eta zilar lanak

☎ 943 422 349

**www.noaua.com**

USURBILGO ATARIA

# ATXEGA JAUREGIA OSTATUA

ONDO PASA  
SAGARDO EGUNEAN!

JUETXEA



- Takontzak, jaunartzeak, ...  
edozein ospakizunetarako  
toki egokia
- Eguneruko menuak  
Plater konbinatuak
- Ogitarlekuak  
Pintxoak

reserbus@hotelatxega.com  
Aitzearra kaldea, Zumartegi poligonoa  
Telf: 943 37 11 50  
943 37 66 66



autonomoentzako eta mikroenpresetarako  
doako **mintegiak**

**Donostialdea**

maiatzak 23  
HERNANI

Hernani Institutua  
(Karmelo Labaka)

Orduetgia:  
**18:00-20:00**

## Enpresan denbora eta baliabideak nola banatu

Gure **denbora** eta enpresako **baliabideak egoki kudeatzeko** modua erakutsiko dizugu. **Koordinatzeko**, gehiegizko lekualdaketak ekiditeko eta baliabideak erabiltzerakoan **denbora eta dirua aurrezteko**, kostu baxuko **soluzioak** (baita doakoak ere) erakutsiko dizkizugu.

Informatzeko eta leuna emateko:

**943 747 314**

www.miramondigital.com  
cursos@miramondigital.com

Sustatzaileak



Arrolatzailea:



**Miramón**  
Enpresa Digitala

# EGIN TXOTX!! sagardotegi garaiari



Txotxetik sagardoa  
garaitu usadioa!

**AIALDE  
BERRI**

Urtarrilaren 18tik irekita!  
Santutues. Tel.: 943 365 031. Mobilak: 670 027 731



**LARRE-GAIN**  
TOLRE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik apirilera txotx garaiari  
(Asteleheneran Itxita)

Larre-Gain Baserria Ereñozu - Hernani  
Tel.: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867



**ASTIAZARAN  
SAGARDOTEGIA  
IRUIN**

Betidanik hemen, denon etxetik gertu.

Urtarrilaren 9-an  
irekiko dugu  
tel.: 943 36 12 29



**ELUTXETA**  
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena ezik.

Ozolan Bulara • URNETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



**SAIZAR**  
Sagardotegia

Kate-bater Amara, 34  
20170 USUREL  
GIPUZKOA  
Tel.: 943 362 229  
[www.sidrasaizar.com](http://www.sidrasaizar.com)



**OTEGI**  
Sagardotegia

Urte guztian irekita Astelehena ezik

Sola onak  
Baserria  
Zabaleta auzoa  
Lasarte-Oria  
Tel.: 943 365 029

